



015623 IES ONDARROA BHI - Hizkuntza Normalkuntza Proiektua - 2014-2018

2014-2018 epealdirako ikastetxe honek prestatu duen Hizkuntza Normalkuntzako Proiektu honek ikastetxearen Organo Gorenaren onespena duela aitortzen dut.

EREMUEN GAINEKO HAUSNARKETA

JUSTIFIKAZIOA

- Ondarroa BHIk 1999tik hona dihardu Ulibarri programan.
- Ulibarri programak ez du, gure iritzirako, izateko arrazoirik galdu oraindik ere: izan ere euskararen ezagutza eta inplantazio mailak aurrera egin duen arren, urrun dago oraindik orain normalizazio erabatekoa, eta euskarak gutxitu egoeran jarraitzen du, are gehiago teknologia berriek eragindako aldaketek erronka berrien aurrean jartzen baikaituzte eta era berean lan ildo berriak zabaldu.
- Euskararen erabilera mailari begiratzen badiogu, arnasgunea dela gure ingurumari hurbila ikusiko dugu berehala: 2011ko kale neurketak azaleratu zuenez, %93,6koa da Ondarroan erabilera, espero zitekeena baino handiagoa, ezagutza %81,1ekoa izaki, 2006ko neurketarekin alderatuz, %87,5, igo egin delarik. Ikastetxeko brankak adierazitakoa be hari beretik doa, eta aurtengo datuen arabera %96,47koa da erabilera, 2010ean ikusitako emaitzak baino 5 puntu gehiagorekin.
- Badu honetan zerikusirik azken urteetan irakasleen jatorrian izan den eboluzioak, izan ere gaur gaurkoz irakasleetan klaustro osoaren 2 heren herrikoak edota eskualdekoak dira. Halaber langile ez irakasleak, bai atalzaintzakoak eta baita idazkaritzakoak ere.
- Ikastetxeko gizateriaren bilakaerarekin jarraituz aitatu behar da baita ikasleetan antzemandakoa, lanbide zikloetako eta batik bat ikastaro berezietako (Hobetuz, Sarbide...) ikasleen ugaritzeak ikaslegoaren paisaia aldatzea Dakar eta horrekin batera hizkuntza prestakuntza premia berriak.
- Eta zelan ez, mundutik etorritako ikasleak, gutxika bada be goi-mailetara heltzen ari direnak, sarri gure jatorrizko ikasleentzat eredu ere bihurtzen direnak jartzen duten ahalegina eta ekinagatik.
- Datuak datu, badugu zereginik, datozen lau urteetarako, erabileraren egoera on honek ezin baitu ezkutatu hizkuntza gutxituei orokorrean eta zehazki euskarari dagozkion ajeak, hala nola IKTak, euskarak iraungo badu giltzarritzako baliabide bilakatuak dagoeneko, eta bereziki sare sozialen ugaritzeak, gehien bat jende gaztearen artean, berarekin dakartzan hizkuntza ohitura berriak, egokitzapen premiak, hizkeren nagusitasuna, beste hizkuntzekin ukipen fenomenoak eta kode alternantziak..., denak euskararen kalitateari, baina batez be Hizkuntzaren Normalizazioari zuzenean lotutako zereginak.

EREMU INSTITUZIONALA

Aurreko plangintza-alditik eremu honen gaineko hausnarketa, balorazioa, ondorioak, jarraibideak...

- Ikastetxeko dokumentazioan euskeraren erabilera erabat normalizatuta dagoela adierazten digute Brankaren emaitzek, %96,47, 6 puntu gehiago 2006ko emaitzekin alderatzen badugu, izan ere bide luzea dugu aurretik jorratua, eta aurrerantzean be dokumentuak euskeraz sortzen jarraitzea da gure asmoa.
- Alta, badugu oraindik zereginik kalitate mailari eutsi ez ezik euskalkiari leku egiten eta ondorioz zeregin honetan eman beharko ditugu urratsak, irizpideak bateratu, adostu eta finkatzen datozen lau urteotan.
- Proiektuei dagokienez bestalde, zortzi dira martxan daudenak ikastetxean eta danak daude euskeraz sortuta, egoera honi eutsi eta datozen berriak, hala nola Hezkidetzeta proiektua, euskeraz idatzi jatorrian.
- IKT eremuan asko aurreratu dugu, baina badira ahuleziak batez be konponketa eta mantenimentuari lotutakoak
- Horiez gain orain arte landutako elkarlan esparruetan ekinean jarraitu, hala nola beste ikastetxeekin koordinatuz, eta baita Udalarekin eta eskualdeko beste erakundeekin.

Eremuaren gaineko BRANKAREN datuak

- **Presentzia:** %91.49
- **Erabilera:** %96.47
- **Espero zitekeen erabilera:** > %91.69
- **BRANKAK ateratako datuen interpretazioa:** Oso handia. Ikastetxeko euskararen erabilera maila euskararen

presentzia-mailak ahalbide dezakeenda gainditzen du; hikuntza bizitasun maila handiko ikastetxea dela adierazten du. Hizkuntza-plana arrakastatsua

Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak.

1. ANTOLAKUNTZA

Gorago egindako hausnarketaren haritik, jorratutako bidean aurrera egitea dagokigu datozen lau urteetan eta HNP eragile nagusi bihurtzea bai ikastetxeko antolamendu orokorrean (hizkuntzari dagokionean, esan gabe doa), baina baita eta berriaz ikastetxean jardunean dauden proiektuekin uztartzen: Hezkuntza Proiektuan ikastetxearen izaera euskaldunna aitortzen, Curriculum Proiektuan euskeraren kalitatearen bikaintasuna lehenesten ahoz zein idatziz, Hizkuntza Proiektuaren ardatz izaten, eta Ikastetxearen harremanetarako hizkuntza irizpideak finkatzen eta hauei guztiei buruzko erabakien berri, ikastetxeko dokumentuetan jaso, eta batik bat AJA.

2. NORMALKUNTZA SUSTATZEKO ERABAKIAK

Bereziki jorratu beharreko ikusten dugu baita ahozotasunaren arloa; curriculumean txertatuta dagoen arren badugu lanik erabilera erregistro zehatzak deskribatu eta mailakutzen, eskualdeko aldaerak suspertu eta hizkuntza estandarraren ezagutzan duten zubi-lana egin aberasgarri izateko.

3. ESKOLA ETA ERAGILEEN ARTEKOA

Eta zelan ez kanpoko eragileekin ditugun harremanak eta loturak sendotu: udalaren euskera zerbitzuarekin elkarlana sistematizatu, Herriko liburutegiaren lankidetzan jarraitu, eta baita euskeraren sustapenarekin lotutako beste zenbait ekimenen edota egitasmoekin.

ESKOLAKO KIDEEN HIZKUNTZAZKO PRESTAKUNTZA ETA ERABILERA

Aurreko plangintza-alditik eremu honen gaineko hausnarketa, balorazioa, ondorioak, jarraibideak...

Gure ikastetxearen inguru soziolinguistikoa euskararen arnasmunetzat har dezakegu. HIZKUNTZAREN kalitatean egindakoari idatzizkoan, besteak beste Urruzuno sariak, irakurzaletasun programa...Beste maila bat igoaz kalitate bikaintasuna dugu orain helburu eta horrekin batera trasmisioaren garrantziaz jabetu eta euskalkiari leku egitea, euskalkiek euskararen

Ahozotasunari arreta berezia jarri beharra be argi dago, jendaurreko edozein esparrutan hartu duen garrantzia kontutan harturik, batez be IKTKo sare sozialek hartu duten hedadura gure ikasleen artean eta honen eragina hizkuntzaren erabilera informalean:inguruko hizkuntzekin ukipena...

Irakasleei begira, berriz, komunikazioa nagusi den egungo gizartean, norberaren prestakuntza beharraz hausnartu, ahozkoan berriaz, eredu baitira ikasleentzat. Izan ere irakasle guztiak dira hizkuntza irakasle eta horren harira adostasunak bilatu beharko ditugu eremu curricularrean, inguru soziolinguistikoa kontuan izanik erregistroen erabilera mailakatu eta erabakiak hartzeko.

Administrazio eta zerbitzuetako langileetan 2010ean azaleratutako emaitzetan ikusitakoa dago berriro begi bistan: erabilera maila handiagoa da ezagutzarena baino. Giza talde Berbera da, eta ahozko komunikazio jarduna ohikoa da eta handiagoa idatzizkoa baino.

Gurasoen arloan ikastetxearekin duten harreman idatzietarako irizpideak finkatze aldera lanean dihardugu eta honetan aurrera egingo dugu batez be kontuan hartuta gurasoen ohiko komunikazioan ikastetxearekin jaitsi egin dela: gurasoen jatorrian bilatu behar da erantzuna, hala LHTik datozen ikasle etorri berriak ugaritu egin dira eta euskera ezagutza eta erabilera nahikoa duten arren, ez zaie berdin gertatzen gurasoei.

Eremuaren gaineko BRANKAREN datuak

- **Presentzia:** %70.91
- **Erabilera:** %88.06
- **Espero zitekeen erabilera:** > %71.11
- **BRANKAK ateratako datuen interpretazioa:** Oso handia. Ikastetxeko euskararen erabilera maila euskararen presentzia-mailak ahalbide dezakeenda gainditzen du; hikuntza bizitasun maila handiko ikastetxea dela adierazten du. Hizkuntza-plana arrakastatsua

Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak.

Egin berri dugun Brankan ikusi denez, (%88,30) 4 puntu gehiago 2006an baino (84,75), ez da erabilera handitzearena aintzat hartu beharrekoa gure ikastetxean. Alabaina, ikasleak jabetu behar dira duten zereginaz trasmisio eragile lez, Euskal herriko errealitate elebiduna interpretatzen saiatuz, euskarara hiztun barriak ekartzeko begirunez jokatzu eta trasmisioari lotuta antolatzen diren jarduera zein egitasmoetan parte hartuz, hala nola Berbalagun egitasmoan.

Gure ikasleen artean IKTKn erabilerearen hedadura geroz ta handiagoa eta batik bat Sare sozialen eraginez sortzen ari diren hizkera berriak, hizkuntza aldaerak funtzio ezberdinetara egokituak, hizkuntza erregistroak, standarizazioa..., dakartzaten erronka, baina baita bide berriak landu behar ditugu ikasleak konturatu daitezen, euskalkiek euskararen iraupenean eta trasmisioan duten funtzioaz .

Halaber, egoera soziolinguistikoaren ondoriozko egoera zenbaiti aurre egiten ikasi: Euren hizkuntza eskubideak eta betebeharrak ezagutu eta aldarrikatu. Hizkuntza garatzeko, sustatzeko eta normalizatzeko erakundeak ezagutu eta baita egungo Euskal gizartearen eleaniztasun-egoera konplexuaz jabetu: ikasle etorkinak batxiler ikasketak egiten (Tzen yi,

Ahozko komunikazioari arreta berezia jarri beharraz, berarekin dakar irakasleen prestakuntza beharraz hausnartzea

kalitatezko hizkuntzan eta erregistro ezberdinetan jarduteko gaitasunari begira, eta datozen urteak erabakigarriak izango dira arlo honetan.

Baina horrez gain hainbat hausnartze jarduera planteiatu beharko dira irakasleen artekoak, arlo guztietatik eragiteko hizkuntza-erregistroak adosteko zikloka eta etapaka. Honekin batera eta ezinbestez metodologia aldaketak izan beharko ditugu, eta adostasunik zabalena lortu behar da irakasleen artean eraginkorra izango bada. Honen harira eta normalizazio bidean Hizkuntzetako irakasleen arteko koordinazioa Curriculumeko Hizkuntzaren dimentsio sozialari garrantzia emanez; bereziki hizkuntzen ukipen fenomenoaren bilakaerari: ingelesaren presentzia geroz eta handiagoa... , kalitatezko hizkuntza jorratuko badugu, ahozkoan zein idatzizkoan.

Gurasoen eta ikastetxeko kideen arteko harremanetan euskeraren erabilera da ohikoena; halanda be kasuan kasukoa da Euskara zein gaztelaniaren erabilera ahozkoan, ez ordea idatzizkoan, eta erabilera irizpideak adostuta ditugun arren, AJAn jasotzea da orain falta dena.

GELAZ KANPOKO JARDUERAK

Aurreko plangintza-alditik eremu honen gaineko hausnarketa, balorazioa, ondorioak, jarraibideak...

Ahozkoari dagozkio gelaz kanpoko jardueretan azaleratutako emaitzak. Ahozkoak eta esparru ez-formaletan gauzatutakoak, jolastokian, urteera-sarreretan, pasabideetan, jantokian, txangoetan..., izaten dira gehien bat ikasleen arteko harremanak eta hizkuntzaren adierazkortasuna eta jariotasuna aberasteko esparru naturala..

Gorago esandako moduan arnagunetzat har dezakegu gure ingurune soziolinguistikoa eta aurrerantzean be horrela jarraitzea bermatzea dagokigu. Esparru ez formal hauek oso baliagarri dira bestalde, jatorri anitzetako ikasleak bertaratu eta euskalduntzeko.

Ikastetxea eragile den neurrian eutsi egingo diogu euskeraren erabilera bermatzeko ahaleginean, oraindik be nahi baino sarriago gauden arren solaskidearen ezagutzaren menpe. Esan beharra dago

Eremuaren gaineko BRANKAren datuak

- **Presentzia:** %91.51
- **Erabilera:** %99.30
- **Espero zitekeen erabilera:** > %91.71
- **BRANKAk ateratako datuen interpretazioa:** Oso handia. Ikastetxeko euskararen erabilera maila euskararen presentzia-mailak ahalbide dezakeenda gainditzen du; hizkuntza bizitasun maila handiko ikastetxea dela adierazten du. Hizkuntza-plana arrakastatsua

Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak.

Brankako datuei erreparatuz begibistakoa da gelaz kanpoko jardueretan euskeraren erabilerearen nagusitasuna beti be tokiko hizkeran, erabilera maila gorena jotze baita: %99,30, ia 10 puntuko aldea 2009ko Brankarekin alderatuz. Halan da guztiz be era antolatuan gauzatzen diren ekintzetan. Mihiluze lehiaketa kasu, hizkera landua erabiltzea lehenetsi izan dugu.

Ikastetxea eragile denean be antzeko emaitzak ateratzen dira : %99,23 eta baita kanpoko elkarteak direnean eragile ere.

Nolega programan parte hartzen be jarraituko dugu, orain artekoa emankorra eta motibagarria izan da-eta. Azken hiru urtetan gainera Ahotsak.com egitasmoan parte hartu izan dugu eta aurrerantzean be ekingo diogu.

Herriko eta eskualdeko erakundeekin elkarlanean jarraitzeko asmoa dugu, eta baita beste ikastetxeekin jarduera bateratuak adosten eta Hizkuntza normalizaziorako bidean lan mintegietan parte hartzen.

BESTELAKO TRESNAK

Horrelako edo antzeko tresnarik erabili baduzue aurreko urte hauetan, zehaztu ondorengo lerro hauetan lanketa horretatik ateratako ondorioak, hausnarketak eta abar...

- **Erabilera neurketa ikastetxeko eremu informaletan**
- **Gela-argazkia**
- **Arrue ikerketa**
- **Bestelakoak**

Azkenengo kale neurketan, 2011n hain zuzen ikusitako datuak. Esparru informaletan ikasleek lagunduta egindako behaketak.

EREMUEN LEHENTASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Plangintzaldian zein lehentasun eta garrantzia eman nahi zaio eremu bakoitzari. Eremu instituzionalean, Hizkuntza Normalizazio Proiektua ageriko egitea ikastetxeko dokumentu idatzi guztietan, eta ardatz eta eragile nagusi izatea Hizkuntza Proiektuan eta hizkuntzaren kalitate bikaintasunean.

IKT erabilera euskararen presentzia bermatzea da 2. lan ildo, eta bereziki sare sozialen erabilera sustatzea, hauen hedadura eta arrakasta gazteen artean oso baliagarri izan daitekelako ahozko komunikazioa eta tokiko hizkera lantze aldera.

Eskolako kideen alorrean, ahozko komunikazioa curriculumean txertatzea era zehaztu eta mailakatuan izango da datozen urteetan lehentasuna, Hizkuntza Normalizazio Proiektua izanik horretan eragile eta gidari. Ikastetxeko gizatalde osoari eragingo dio zeregin honek eta ildo horretatik beharrezkoa izango da irakasleen arteko lankidetzeta eta adostasuna. Ikastetxeko prestakuntza planean be izango du eragina prozesu honetan sortuko diren prestakuntza premiak.

Eta ikastetxetik kanpoko lankidetzari ere tutsi egingo diogu orain arte jorratutako bideari: beste ikastxeekin eta erakundeekin elkarlanari eutsi, eta bide berriak ireki, batez be ahozkotasanari lotutakoak.

4 URTEKO PROIEKTUA

1.-EREMU INSTITUZIONALA

1.1.-IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA

Esparru honetako eragin-esparruak: organu gorena, eskola kontseilua, gurasoak (partaidetza-inplikazioa), zuzendaritza, dok. administratiboak-ekonomia, jakinarazpenak, mediateka, espazioaren hizk. antolaketa-paisaia, hizk. normalkuntzarako egitura, bestelakoak

					DENBORALIZAZIOA			
HELBURU ZEHATZA	ARDURA	JARDUERA MOTA	ADIERAZLE MOTA Kuantitatiboa	ADIERAZLE MOTA Kualitatiboa	14-15	15-16	16-17	17-18
Antolamendua ikastetxearen izaera euskalduna mantentzeari egokitzea	HNB	Antolaketa jarduerak , Erabakiak adosteko prozesuak , Hausnarketa jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 9				
IKT eremua euskaraz izatea zaintzea	Sail didaktiko bat	Mantentze jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 8				

1.2.-NORMALKUNTZA SUSTATZEKO ERABAKIAK

Esparru honetako eragin-esparruak: hezkuntza proiektua, Curriculum proiektua, hizkuntza proiektua, AJA, ikastetxeko kudeaketa plana, aurrekontua, urteko memoria, bestelakoak

					DENBORALIZAZIOA			
HELBURU ZEHATZA	ARDURA	JARDUERA MOTA	ADIERAZLE MOTA Kuantitatiboa	ADIERAZLE MOTA Kualitatiboa	14-15	15-16	16-17	17-18
Ikastetxeko dokumentu idatzietarako hizkuntza irizpideak finkatzea	HNB	Antolaketa jarduerak , Erabakiak adosteko prozesuak		Betetze mailaren balorazioa, 9				
Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan Hizkuntza Normalizazioa ardatz izatea	Sail didaktiko bat	Erabakiak adosteko prozesuak		Betetze mailaren balorazioa, 8				
Akozkoaren lanketa arlo guztietara zabaltzea	hizkuntza arloko irakasleak	Antolaketa jarduerak , Erabakiak adosteko prozesuak		Betetze mailaren balorazioa, 8				

1.3.-IKASTETXEAREN HARREMANETARAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Esparru honetako eragin-esparruak: ikastetxeekin, berritzegunearekin, hezkuntza administrazioarekin, instituzioekin, elkarteekin, enpresekin, hornitzaileekin

					DENBORALIZAZIOA			
HELBURU ZEHATZA	ARDURA	JARDUERA MOTA	ADIERAZLE MOTA Kuantitatiboa	ADIERAZLE MOTA Kualitatiboa	14-15	15-16	16-17	17-18
Hezkuntza administrazio eta instituzioetan euskarazko harremanak bermatzea	Zuzendaritza	Erabakiak adosteko prozesuak , Ebaluazio jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 9				

Enpresa eta hornitzaileekin euskara ahoz zein idatziz erabiltzen dutenak lehenestea	Idazkaritza	Ebaluazio jarduerak , Mantentze jarduerak	Betetze mailaren balorazioa, 7				
---	-------------	---	--------------------------------	--	--	--	--

1.4.-ESKOLA ETA ERAGILEEN ARTEKO ELKAR HARTZEA

Esparru honetako eragin-esparruak: EBPN, ikastetxeen arteko jarduerak, herriko euskara elkarteak, bestelako elkarteak, euskal komunikabideak, bestelakoak

					DENBORALIZAZIOA			
HELBURU ZEHATZA	ARDURA	JARDUERA MOTA	ADIERAZLE MOTA KUANTITATIBOA	ADIERAZLE MOTA KUALITATIBOA	14-15	15-16	16-17	17-18
Herriko erakundeekin, udala, liburutegia lankidetzan jarraitzea	HNAT	Antolaketa jarduerak , Ebaluazio jarduerak , Mantentze jarduerak		Parte-hartzearen balorazioa, 10				
Eskualde eta Erkidego mailan euskararen normalizaioarekin lotutako elkarteekin lankidetzan jarraitzea.	HNAT	Antolaketa jarduerak , Ebaluazio jarduerak , Mantentze jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 9				
Eskualdeko komunikabideetan parte hartzea.	Zuzendaritza	Ebaluazio jarduerak		Parte-hartzearen balorazioa, 9				

2.-ESKOLAKO KIDEEN HIZKUNTZAZKO PRESTAKUNTZA ETA ERABILERA

2.1.-IKASLEAK

Esparru honetako eragin-esparruak: komunikazio gaitasuna, interakzio didaktikoa, partaidetza inplikazioa, motibazioa-girotzea

					DENBORALIZAZIOA			
HELBURU ZEHATZA	ARDURA	JARDUERA MOTA	ADIERAZLE MOTA KUANTITATIBOA	ADIERAZLE MOTA KUALITATIBOA	14-15	15-16	16-17	17-18
Sare sozialetako hizkuntza erabilerak ezagutu eta lantzea	EHL eta HNAT	Sentiberatze-motibazio jarduerak , Hausnarketa jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 8				
Ahozkotasuna lantzea, hizkuntzaren erregistroak ezagutu eta erabitzen trebatzea.	Sail didaktiko bat	Prestakuntza edo trebatze jarduerak , Hausnarketa jarduerak , Ebaluazio jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 9				
Irakurzaletasuna bultzatzea	EHL eta HNAT	Antolaketa jarduerak , Mantentze jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 8				
Idaztezaletasuna bultzatzea	EHL eta HNAT	Antolaketa jarduerak , Mantentze jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 9				

2.2.-IRAKASLEAK

Esparru honetako eragin-esparruak: metodologi-interakzio didaktikoa, komunikazio gaitasuna, prestakuntza, irakasleen arteko interakzioa, partaidetza-inplikazioa, motibazioa girotzea

					DENBORALIZAZIOA			
HELBURU ZEHATZA	ARDURA	JARDUERA MOTA	ADIERAZLE MOTA KUANTITATIBOA	ADIERAZLE MOTA KUALITATIBOA	14-15	15-16	16-17	17-18
Ahazkoa lantzea irakasgai guztietara zabaltzea guztietara zabaltzea	zuzendaritza, hizkuntzak arloa	Erabakiak adosteko prozesuak , Hausnarketa jarduerak , Ebaluazio jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 8				

Ahozko jardunean erabiltzeko erregistroak mailakatu eta erabilera irizpideak adostea	Hizkuntza arloa	Prestakuntza edo trebatze jarduerak , Erabakiak adosteko prozesuak , Hausnarketa jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 8				
Hizkuntzaren normalizaziorako Hizkuntzetako Curriculumeko 5. multzoa baliatzea	Hizkuntzak arloa	Ebaluazio jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 8				
Irakasleen prestakuntzan kalitateaeko euskara hobestea.	Zuzendaritza	Prestakuntza edo trebatze jarduerak , Mantentze jarduerak		Parte-hartzearen balorazioa, 8				
Hizkuntzetako ebaluazio-irizpide bateratuak adostea arlo guztietarako	Zuzendaritza, hizkuntzak arloa	Prestakuntza edo trebatze jarduerak , Erabakiak adosteko prozesuak , Hausnarketa jarduerak , Ebaluazio jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 8				

2.3.-ADMINISTARIA(K) ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

Esparru honetako eragin-esparruak: komunikazio gaitasuna prestakuntza, partaidetza-inplikazioa, motibazioa-girotzea

					DENBORALIZAZIOA			
HELBURU ZEHATZA	ARDURA	JARDUERA MOTA	ADIERAZLE MOTA Kuantitatiboa	ADIERAZLE MOTA Kualitatiboa	14-15	15-16	16-17	17-18
Euskararen ezagutza eta erabilera mailari eustea	HNAT	Prestakuntza edo trebatze jarduerak , Mantentze jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 8				

2.4.-GURASOAK

Esparru honetako eragin-esparruak: familiaren hizkuntza topologia, harreman hizkuntza, komunikazio gaitasuna-prestakuntza, motibazioa-girotzea, gurasoak-eragile

					DENBORALIZAZIOA			
HELBURU ZEHATZA	ARDURA	JARDUERA MOTA	ADIERAZLE MOTA Kuantitatiboa	ADIERAZLE MOTA Kualitatiboa	14-15	15-16	16-17	17-18
Akozkoaren transmisioan duten eraginaz ohartaraztea, ahozko erabilera informalei prestigioa emanez	Sail didaktiko bat	Sentiberatze-motibazio jarduerak , Hausnarketa jarduerak		Asebetetzearen balorazioa, 8				

3.-GELAZ KANPOKO JARDUERAK

3.1.-ESKOLA ERAGILE

Esparru honetako eragin-esparruak: jolasaldiak, jantokia, sarrera-irteerak, jai-ospakizunak, irteerak, egonaldiak, autobusa, eskola-kirola, aisialdia, bestelakoak

					DENBORALIZAZIOA			
HELBURU ZEHATZA	ARDURA	JARDUERA MOTA	ADIERAZLE MOTA Kuantitatiboa	ADIERAZLE MOTA Kualitatiboa	14-15	15-16	16-17	17-18
Idatzizko dokumentuetarako hizkuntza irizpideak adostea	HNAT, zuzendaritza	Erabakiak adosteko prozesuak		Betetze mailaren balorazioa, 8				

3.2.-ELKARTE/ERAKUNDEAK ERAGILE

Esparru honetako eragin-esparruak: jai-ospakizunak, irteerak-egonaldiak, udalekuak, aisia-kirola, erakundeen esku-hartzea, erlijio jarduerak, musika, bestelakoak

					DENBORALIZAZIOA			
--	--	--	--	--	-----------------	--	--	--

HELBURU ZEHATZA	ARDURA	JARDUERA MOTA	ADIERAZLE MOTA KUANTITATIBOA	ADIERAZLE MOTA KUALITATIBOA	14-15	15-16	16-17	17-18
euskararen erabilera lehenestea	HNAT, zuzendaritza	Ebaluazio jarduerak		Betetze mailaren balorazioa, 8				